



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

42. INFORMAZIO BULETINA

> 2010eko Otsaila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Europa 2020: Estrategia europar berria

Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategia abian jarri du, krisitik eroso atera eta EBren ekonomia hurrengo hamarkadari begira prestatzeko xedearekin. Estrategia elkar lotutako lehentasunezko hiru arlotan oinarritzen da, elkar indartzen direnak:


- hazkunde adimenduna, ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatuz;
- hazkunde jasangarria, karbono-maila baxua duen, baliabideetan eraginkorra den eta lehiakorra den ekonomia sustatuz;
- eta hazkunde integratzailea, gizarte- eta lurralde-kohesioa sustatuko duen enplegu-maila altuko ekonomia suspertuz.

Helburu horiek lortzeko bidean aurrera egitea EBren esparruan esanguratsuak diren bost helburu nagusiren arabera neurtuko da, eta abiapuntuak islatzen dituzten nazio-mailako helburu bilakatu beharko dituzte estatu kideek: 20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen % 75ak lana izan beharko du; EBren BPGaren % 3a I+Gea inbertitu beharko da; «20/20/20» helburuak erdietsiko dira klima eta energiaren esparruan; eskola uzteko tasa % 10 baino baxuagoa izan beharko da eta gutxienez gazteen % 40ak kualifikazioa edo diploma izan beharko du; eta 20 milioi pertsona gutxiago egongo dira pobrezia-arriskuaren eraginpean.

Helburu horiek lortzeko, Batzordeak Europa 2020 agenda proposatzen du eta agenda hori zazpi ekimen handitan oinarritzen da: Berrikuntzaren Bateratzea, Gazteria mugimenduan, Europarako agenda digitala, Europa eraginkorra baliabideei dagokienez, Industria-politika hazkunde berdearentzat, Agenda kualifikazio berrientzat eta enpleguarentzat, eta Pobreziaren aurkako Europako plataforma.

Informazio gehiago (gaztelera):

<http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/COMPLET%20ES%20BARROSO%20-%20Europe%202020%20-%20ES%20version.pdf>



> Gipuzkoa eta Europar Batasuna susperraldi ekonomikoari aurre egiten ari dira

2009ko laugarren hiruhilekoan Gipuzkoako BPGaren hiruhilekoen arteko hazkundea % 0,2 izan zen. Modu horretan, aurreko hiruhilekoan abiatutako joera-aldaketa finkatu egin zen (% 0,3 hazi zen). Bilakaera hau EB-27 osoaren antzekoa da; aipatu hiruhilekoetan, hurrenez hurren, % 0,3 eta % 0,1eko hazkundeak izan ziren.

Urteko laugarren hiruhilekoari dagozkion urtetik urterako hazkunde-tasei dagokienez, halaber, bilakaera antzekoa da, Gipuzkoan % -2,1 eta EB-27an % -2,3ko hazkunde negatiboarekin.

Urtetik urterako aldakuntza-tasei dagokienez, Erkidegoko herrialde guztiek bilakaera negatiboak izan dituzte, Poloniak izan ezik. BPGaren gutxiagotze txikiena Frantziak, Belgikak eta Portugalek izan zuten, % -1 baino txikiagoa.

Informazio gehiago:

(euskara): http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0005700/not0005701_e.html

(ingeleza): http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-04032010-AP/EN/2-04032010-AP-EN.PDF



KOHESIO-POLITIKA

> 5,6 milioiko laguntza Euskadiko mugaz haraindiko lankidetzarako

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen (POCTEFA) esparruan, otsaileko Programazio Batzordean 28 proiektu antolatu ziren. Proiektu horiek, guztira, 51 milioi euroko kostua izango dute eta 33,5 milioi euroko EGEF erkidegoko diru-laguntza jasoko dute.

12 proiektutan Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileek parte hartzen dute, eta sustatzaile horiek 8,6 milioiko inbertsio eskusiboa egingo dute eta 5,6 milioi euroko diru-laguntza jasoko dute.

Programatutako proiektuen talde-buruen artean, honako hauek daude: Fomento de San Sebastián S.A. (ENERTIC proiektua), Agencia de Desarrollo del Bidasoa S.A. (INNOV MUGABE), ETEO S.Coop. (ERALAN2) eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldia (Zinema Eraikitzen).

Informazio gehiago:

www.poctefa.eu

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-15873/eu/contenidos/informacion/loultimo/eu_azkeneko/adjuntos/estado-situacion2010eusk.pdf

> Kohesio-politikaren komunikazioa

Eskualdeko politikaren zuzendaritza orokorraren Panorama aldizkariak, egitura-funtsei buruz informazioa eman eta publizitatea egiteko orduan kohesio-politikaren komunikazioaren eta indarrean dauden arau eta araudien garrantzia aztertzen du.

Eta halaber, eskualdeko politika eta politika horrek pertsonen eguneroko bizitzan duen benetako eragina hobe ezagutzera zuzendutako ekimenen praktika egoki batzuk aurkezten ditu.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panora_en.htm



> Hiriak eta kohesio-politika

Argitalpenak kohesio-politikatik garatutako ekimenak aurkezten ditu, egitura-funtsen bidez, hiriguneetan garapen jasangarria laguntzeko helburuarekin.

Eta hiriek erkidegoetako politiken onurak nola jaso ditzaketen ikertzen du, politika horiek hiriguneetan duten eragina aztertzen du eta finantziazio-iturri indartsuen inguruko informazioa eskaintzen du.

Informazio gehiago (ingelese/frantsesa):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/guides/urban/index_en.htm

> Johannes Hahn, eskualdeko politikarako Komisario europar berria

Europako Batzordearen talde berriaren agintaldia hasi da eta Johannes Hahnek eskualdeko politika saila bere gain hartu du. Austriako Gobernuak izendatu du eta Hahnek Pawel Samecki aurreko Komisario poloniarren lekua hartu du. Batzordeko kargua hartu aurretik, Johannes Hahn Zientzia eta Ikerketarako Austriako ministro federala izan zen.

Europako eskualdeek aurrean dituzten erronken artean, susperraldi ekonomikoari eta epe luzerako oparotasunari begira sortutako Europako Batzordeko 2020 Estrategian eskualdeko politikak paper garrantzitsua bete dezan lan egiteko asmoa azpimarratu du Komisarioak.

Informazio gehiago (ingelese):

http://ec.europa.eu/commission_2010-2014/hahn/index_en.htm



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Gipuzkoa, Ikasketa Kontuetan Europako praktika ona

Gizarte Politikako Departamentuaren Enplegu Unitateak Trentoko (Italia) Probintzia Autonomotik etorritako aditu taldearen bisita izan zuen joan den abenduaren 15ean.

Lurralde honek Learning Accounts edo ikaskuntza-kontuetan oinarritutako prestakuntza-programa bat abian jarri nahi du, kualifikazio-maila baxua eta enplegarritasun arazoak dituzten pertsoneri zuzendua.

Horretarako, nazioartean (Europa eta Ipar Amerika) jardunbide egokitzat jotzen diren 48 ekimenen ikerketa-proiektua gauzatzen ari da, esperientzia esanguratsuenak aztertuz. Horien artean, Sarbide prestakuntza-programa dago.

Bisitan barrena programa aurkeztu zen, programaren filosofia eta prozedura azpimarratuz. Azpimarratzekoa da 2008-2008 ikasturtean barrena 1.371 pertsonak parte hartu zutela Sarbide prestakuntzan, eta horietatik % 47ak lana topatu duela.

Jardunaldia bukatzeko, Tknikaren instalazioak (Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa) bisitatu zituzten.

> Biodibertsitatea 2010az haratago

Batzordearen Komunikazioak dioenez, klima-aldaketarekin batera, biodibertsitatearen galera (ekosistema, espezie eta geneen aldaerak, planetaren kapital naturala) da mundu-mailan ingurumeneko arazorik handiena eta ekonomiaren eta ongizatearen baldintzen galera handiak eragiten ditu.

Eta garapen jasangarria osatzen duen atal gisa, ezinbesteko ondasun eta zerbitzuak eskaintzen ditu (elikagaiak, karbonoaren bahiketa, uren eta itsasoaren arautzea, etab.), eta horiek gure oparotasun ekonomikoaren, gizarte ongizatearen eta bizitza-kalitatearen oinarri dira.

Eta 2020ko mugari begira, helmuga egokia ezartzea komeni dela adierazten du. Helmuga nagusi horri lotuta, lau anbizio-maila bereizten ditu:

- Hemendik 2020 urtera EBko biodibertsitatearen eta ekosistema-zerbitzuen galeraren erritmoa modu esanguratsuan murriztea.
- Hemendik 2020 urtera EBko biodibertsitate eta ekosistema-zerbitzuen galera gelditzea.
- Hemendik 2020 urtera EBko biodibertsitate eta ekosistema-zerbitzuen galera gelditzea eta ahal den heinean berritzea.
- Hemendik 2020 urtera EBko biodibertsitate eta ekosistema-zerbitzuen galera gelditzea eta ahal den heinean berritzea; halaber, mundu osoan barrena biodibertsitatearen galera saihesteko EBren ekarpena indartzea.

Informazio gehiago (gaztelera):

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0004:FIN:ES:PDF>



> Babes soziala eta gizarteratzea

Krisiak pobreziaren alderdi anitzak larriagotu egin ditu eta Europar Batasunean langabezia nabarmen handitu du.

Krisiari esker eta Lisboako Estrategiaren hamar urteetan eskuratutako esperientzian oinarrituta, Batzordearen agiriak hazkunde jasangarria sustatzea beharrezkoa dela uste du, enplegua sortzearekin eta kohesio sozialarekin batera. Halaber, gizarte gaietan, genero berdintasuna barne, aurrerapenak sistematikoki ebaluatu behar direla uste du.

2010, Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren aurkako Borrokarako Urte Europarra, pobrezia eta gizarte bazterketa gainditzeko bidean aurrerakuntza erabakigarriak egiteko EBk orain hamar urte hartutako konpromisoa argi eta garbi berresteko une aproposa da.

Informazio gehiago (gaztelera):

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2010:0025:FIN:ES:PDF>

> Europako Batzorde berria

Europako Batzorde berria izendatzen duen Europako Kontseiluaren erabakia otsailaren 9an argitaratu zen EBAOn. Europako Parlamentuan, José Manuel Durao Barroso Europako Batzordeko presidentearen talde berriak aldeko 488 boto, aurkako 137 boto eta 72 abstentzio jaso zituen.

Informazio gehiago (gaztelera):

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2010:038:0007:0008:ES:PDF>



e-LIBURUTEGIA

> Produkzio-sektoreak krisitik ateratzea

Europar Batasuneko herrialdeetan manufaktura-industriaren, eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetan susperraldi ekonomikoak izandako eragin- eta aurrerakuntza-maila aztertzen du agiriak.

Zentzu honetan, egoera desberdina da sektoreen artean eta estatu kideen artean, susperraldi ekonomikoaren aurreko zuhurtzia-testuinguru orokor batean. Eraikuntzaren produkzioa txikiagotu egin da; gaitasunaren erabilera oso ahula da oraindik, eta lan-merkatua gehiago hondatzeko aukerak nola enpresentzako baldintza egokietan finantzatzeko erabilgarritasun mugatuaren arriskuak susperraldi ekonomikoa geldi dezakete.

Hala ere, munduko merkataritza indartzearen, eskaera berriak handiagotzearen eta azken hilabeteotan hazten ari den konfiantzaren ondorioz, industria europarrarentzat etorkizunak hobetzeko joera du.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/document.cfm?action=display&doc_id=5662&userservice_id=1&equest.id=0

> Erasmus mugikortasuna

Europako Batzardeak Erasmus Programari lotutako mugikortasunaren azterketa estatistikoa argitaratu du, eta horren barruan sartu ditu 2007-2008 ikasturteari dagozkion ikasle eta langileen mugikortasunaren azterketa xehatuak.

Ikasturte horretan, goi-mailako 2.500 hezkuntza-erakundeetako 183.000 ikaslek eta 32.000 irakaslek parte hartu zuten programan, eta helmuguen artean, aipatzekoak dira Espainia, Frantzia eta Alemania.

Informazio gehiago (ingelesez):

<http://ec.europa.eu/education/erasmus/doc/stat/0708/report.pdf>



> Inbertsio publikoa Espainian

Europako Batzordeko Eskualdeko Politikarako Saileko Regional Focus azterketak Espainiako inbertsio publikoa aztertu du. Maila anitzeko gobernantzaren esparruan, kohesio-politikari eta gastu nazional baliokideari buruzko erabaki asko esparru azpinazionalean hartzen direla nabarmendu du.

Ondorioz, gobernuaren maila desberdinetako gastuaren inguruko informazioa ezinbestekoa da gastu publikoaren inguruan hartzen diren erabakiek ekonomian dituzten ondorioak ulertzeko.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/focus/2009_02_spain_es.pdf



ADIERAZLEAK

> Europar Batasunaren aurreikuspen ekonomikoak: susperraldi ahula

Europako Batzordearen aurreikuspenek ekonomia europarra pixkanaka-pixkanaka suspertzen ari dela nabarmentzen dute, nahiz eta oraindik ahula izan: 2009ko hirugarren hiruhilekoan BPG berriz ere hazten hasi zen, Batasuneko historiako atzeraldi luze eta sakonenari amaiera emanez.

2010ean BPG % 0,7 handitzea eta inflazioa % 1,1 izatea aurreikusten da. Hala ere, aurreikuspen hauek ez dira ziurrak, finantza-merkatuen orain dela gutxiko bilakaerak erakusten duen moduan.

Erkidegoko politiken helburu globala ekonomia europarra hazkunde indartsu eta jasangarriaren bidean birkokatzea da, bi alorretan jardunez: susperraldi ekonomikoa eta kontu publikoen onbideratzea.

Informazio gehiago (ingelesez):

http://ec.europa.eu/economy_finance/articles/eu_economic_situation/2010-02-25-eu_interim_economic_forecast_en.htm

> Gipuzkoa EB-27ren aurretik dago I+Gean egindako gastuaren intentsitateari dagokionez

2008an, Gipuzkoan I+Gean egindako gastua BPGaren % 2,23 izan zen, EB-27ren batez bestekoa gaindituz (% 1,90). Gipuzkoako gastua 501 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoarekin alderatuta, % 12 handiagoa.

Informazio gehiago (gaztelera):

http://www.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0005700/not0005731_e.html



> Emakumeak eta gizonak Europar Batasunean

Eurostaten oharrak, ikuspegi estatistiko batetik, Batasunean eta bere estatu kideetan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak jasotzen ditu. Aukeratutako erreferentziako adierazleek hiru alderdi hartzen dituzte kontuan: demografia, enplegua eta Interneten erabilera.

Informazio gehiago (ingeleza):

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/1-05032010-AP/EN/1-05032010-AP-EN.PDF